

popper



EU

ailaket!!

konposizioa, itxura eta aizunketa

01



popper konposatu nitrogenatu



Popper, konposatu nitrogenatu ezberdinak izendatzeko erabiltzen den izen generikoa da. "Popper" izena onomatopeia bat da, amil nitritodun anpoileta apurtzean sortzen den zaratari erreferentzia egiten diona.

Likido koloregabe edo garden-horixka sukoiak dira, usain berezia dute eta oso lurrunak dira, hau da, giro-temperaturan erraz igarotzen dira egoera likidotik gaseosora.

Girozaille edo garbiketa-produktu gisa merkaturatzen dira. Etiketan ez kontsumitzea gomendatzen da.

Anbar koloreko beirazko pote txikietan merkaturatzen dira.

Pototxoetan dagoen nitrito kopurua eta barietatea aldakorra da. Normalean poteak 9-30 ml artekoak izaten dira

Konposatu ohikoenak honakoak dira: isoamilo nitrito, isopropilo nitrito, pentilo nitrito, nitrito amiloa, eta butil nitrito.

Bere usain sendoa dela eta, ekoizleek usainak gehitu ahal dizkiete erabiltzaileei erakargarriago egiteko.



Beste konposatu batzuk ere izan ditzakete, hala nola isopropanola edo isopentanola.



dosia zenbatekoa den eta nola hartzen den

02

Erabiltzeko modua substantziaren hegazkortasun handiak baldintzatzen du. Potoa ireki eta berehala sudur-zuloetako batean jartzen da, bestea estaliz, lurrunak arnasteko. Ostean potea berehala itxiko da lurrundu ez dadin. Inhalaziorako ekipamendu zehatza ere badago, maskara itxurakoa.

Biriketari sartu eta 10 bat segundora (nitrito motaren arabera aldatzen da) efektuak hasten dira, zeinak 15-30 segundo inguru irauten duten.

Normaltasun osora bi minuturen inguruan bueltatzen da.

Erabiltzaileen arabera, inhalazioaren intentsitatearen arabera efektuen intentsitatea eta iraupena aldatzen da.



Irentsiz gero, oso toxikoak dira. Digestio-aparaturako korrosiboak izateaz gain, odolaren hipooxigenazio-koadro larria (oxigeno-falta) sor dezakete, baita heriotza ere.

Larruazalarekin edo begiekin kontaktu zuzena duenean ere oso toxikoa da, eta erredurak eta narritadurak eragin ditzake.

Kontaktu bidez, kaltetutako eremuko zelulen DNAn kalteak eragin ditzake, gaixotasun neoplasikoak izateko arriskua areagotuz.

hasierako ondorioak

03

01

Efektuak aldatu egiten dira nitrito motaren, horien konbinazioaren eta dosiaren arabera. Kontuan izan behar da, halaber, ezaugarri pertsonalek (fisikoak, psikologikoak eta sozialak) zein inguruak eragina dutela efektuetan.

03

Hauetako erreakzio fisiko ohikoenak: bihotz-erritmoa areagotzea, aurpegia, lepoa eta bularra gorritzea, izerdia buruan eta lepoan.

Erekituak izateko eta mantentzeko zailtasunak sor ditzake.

05

areagotuz), penetrazioa erraztuz eta orgasmoaren intentsitatea handituz.

02

Nerbio-sistema zentralaren estimulatzailea da, eta basodilatzaile indartsua. Nitritoak arnasteak muskulu lauak erlaxatzen ditu, eta horrek aldi berean, odol-hodiak dilatatzea eragiten du. Hala, odol-fluxua areagotzen da, eta bihotz-lana eta oxigeno-kontsumoa gutxitu egiten dira.

04

Efektuak oso laburrak dira, bero sentsazioa bularrean eta buruan, eta euforia txiki bat. Euforia sentsazio hau dela eta, bere efektu basodilatzailea eta muskulu leunen erlaxazioa (uzki esfinterrarenak eta baginarenak bezala) praktika sexual batzuetan erabili ohi da (estimulazio sentsorial atsegina



ondorioak epe ertain eta luzera

04

01

Gehiegizko erabilerak erabilerak erregularrak suduraren eta ezpainen ingururan larruazaleko arazoak izatea eragin dezake.

02

Tolerantzia azkarra ere eragiten du, denbora-barratze labur batean denbora eta berriz erabiltzen denean.



04

Epe luzeko erabilerak mendekotasun psikologikoa ekar dezake, baina ez dago mendekotasun fisikoari buruzko txostenik edo abstinentsia-sintomarik.



03

Erabiltzaileen arabera, egun berean hainbat dosi hartzen badira, bilatzen diren efektuak mugatu egiten dira eta kontrako efektuak areagotu. Hala ere, erabiltzeari utzi eta egun guxira, desagertu egiten da.

Efektuak oso laburrak direnez, beste substantzien efektuekin elkarrengatik ez egotearen uste faltsua eragin dezakete.

POPPER + BOTIKAK

Inpotenziaren aurkako botikekin batera erabiliz gero, kontrako efektu larriak sortzen dira (takikardia, zorabioa, buruko mina), eta **tentsio-jaitsiera oso larriak** eragin ditzake.

Bihotzeko gaixotasun batzuetarako erabiltzen diren **beste farmako batzuekin** nahastuz gero, hilgarria izan daiteke.

POPPER + ESTIMULATZAILEAK

Substantzia estimulatuzaileekin batera erabiltzean (MDMA, Anfetamina, Metanfetamina, kokaina), sistema kardiobaskularrak ahalegin handiagoa egin behar izatea eragin dezake.

Bai substantzia estimulatuzaileen eta bai Popperraren dosia igo ahala, efektuen intentsitatea areagotuko da, baita arriskua ere.

POPPER + ALKOHOLA

Alkohola: efektu hipotensorea areagotzea eta euforia sentsazioa areagotzea.



Kontuan izan ondorengo arrisku faktoreak



Bihotzeko gaixotasunen bat duten pertsonentzat, nitritoak arnastea hilgarria izan daiteke, takikardia eragiten duelako eta interakzioa eragiten duelako agindu ohi zaizkien sendagai basodilatatuzaileekin.

Nitritoren bati alergikoa izatea.

Glaukoma, garuneko lesioak, bihotzeko edo arteria-presioko anomalia gisako osasun-arazoak izatea edo aurretik eduki izana.

Haurdun edo edoskitze garaian egotea.

Kontsumitzea erabaki baduzu, kontuan izan...

hartu baino lehen

Gehiegizko dosietan edo ohitu gabeko pertsonengan buruko min handia eragin dezake, baita beste konplikazio batzuk ere (zorabioa, takikardia, sinkopea).

Kontuan izatea salmenta legezkoa izan arren, ez duela osasun-kontrolik, salmenta ez baitago giza kontsumorako pentsatuta.

Leku egoki batean gordetzea. Deskonposatu egiten dira argiaren, beroaren edo oxigenoaren eraginpean.

Kontsumitu aurretik, pototxo bakoitzaren osakerari buruzko informazioa irakurtzea, erreakzio alergikoak saihesteko eta gozamen eta arriskuak modu egokian kudeatzeko.

Espazio eroso batean egotea, zerbaiti heltzeko edo non esertzeko aukera izatea, zorabioen aurrean azkar eta modu egokian erantzuteko.



bitartean

Kontuan izan konortea gal daitekeela korrika edo dantza egitea bezalako ahalegin fisikoak egiten badira.

Nitritoak substantzia korrosiboak dira: azala ukituz gero, berehala garbitu behar da urarekin.

Sexu-harremanak badituzu, saihestu arrisku-praktikak. Erabili preserbatiboak edo ahozko hesiak transmisio genitaleko infekzioak (kandidak, herpesak, hepatitis, GIB-hiesa, etab.) eta haurdunaldiak saihesteko.

Kontuan izan mugimenduan edo jende askoren artean kontsumituz gero substantzia erori daitekeela.

Mukosak edo begiak ukituz gero, garbitu urez minutu batzuetan.

Enbarazu egiten baduzu, joan medikuarengana.

Pertsona batzuegan, erektzioa zailtzen edo eteten du, eta, beraz, preserbatiboak kontsumitu aurretik erabiltzea komeni da.

Behin eta berriz erabiltzeak kontrako efektuak agertzea errazten du.



Esfinterraren dilatazioak sarketa errazten badu ere, ohitu gabeko pertsonengan odola edo lesioak gerta daitezke.

ondoren

Kontsumoak bereizten saiatzea. Kontuan izan kontrako efektuak izateko arriskua handitu egiten dela etengabe kontsumituz gero.



Ai laket!! irabazi asmorik gabeko elkartea da eta legez kanpoko drogen kontsumitzaile zein kontsumitzaile ohiek osatzen dute. Elkartea, kontsumo arduratsuen eta drogen erabileraren arriskuak murrizteko ikuspuntuetatik, substantzia psikoaktibo ezberdinekin bizitzeko ikastearen aldeko apustua egiten du. Izan ere, drogak kontsumitzea ala ez, pertsona helduek informazioa jaso ondoren kontsumituz hartu beharreko erabakia dela uste du. Ai laket!!-en asmoa, beraz, ez da erabaki horren gainean eragina izatea, baizik eta informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria eskaintzea, kontsumitzeko erabakia hartzekotan, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek zentzudun jokatzeko informazioa izan dezaten.

Jesusen Mirabeen Sortzailearen kalea, 40 etxabe.
01001 Vitoria-Gasteiz
(+34) 945 23 15 60
ailaket@ailaket.com
www.ailaket.com